BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

326

EBAZPENA, 2018ko urtarrilaren 12koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, zeinen bidez jendaurrean jartzen baita Euskal Enplegu Publikoaren Legearen aurreproiektua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Euskal Enplegu Publikoaren Legearen aurreproiektua prestatu du, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu behar den aurreproiektua.

Horregatik, legezko erregulazio hori betetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman zituen, batetik, 2017ko maiatzaren 17ko Agindua, zeinaren bidez hasiera eman baitzitzaion Euskal Enplegu Publikoaren Legearen aurreproiektua prestatu eta izapidetzeari, eta, bestetik, 2017ko urriaren 16ko Agindua, aurretik lege-aurreproiektu hori onartzekoa, testu artikulatua idatzi eta gero.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikuluan ezarritakoari jarraituz, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Erregulazioak Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei eragingo die, funtzio publikoan lan egiteko baldintzak eta EAEko Administrazio Publikoen funtzionamendu osoa eta eraginkorra zehaztuko baititu.

Hori dela-eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikuluarekin bat etorriz, aipatutako aurreproiektua jendaurrean jartzen da, eta, horretarako, hogei egun balioduneko epea nahikotzat jotzen da; epe hori iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Azaldutakoagatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura eta egitekoak ezarri zituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 4.c) eta 16. artikuluetan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea Euskal Enplegu Publikoaren Legearen aurreproiektua, hogei egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Funtzio Publikoko Sailburuordetzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taulan, euskadi.eus-en.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 12a.

Funtzio Publikoko sailburuordea,
ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA.